

GOBERNU BATZARRA

2007.01. 29

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

**Olatz Peon Ormazabal
Jokin Azkue Arrastoa
Andoni Iturzaeta Arbillaga
Onintza Lasa Arteaga
Jose M. Vieites Gomez**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zazpiko urtarrilaren 29an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeko eta erabakiak hartzeko:

1.-Aurreko akta onartzea.

2.-Tolosako Udalak herriko ikastetxeei euskararen erabilera sustatzeko plangintzak diruz laguntzeko deialdiari buruzko txostena.

3.-Inauterietako egitaraua eta aurrekontua.

4.- KPI-ren igoera: Kontratuak; familiei dirulaguntzak; taldeei dirulaguntzak.

5.-Emeterio Arreseren Zentro Sozialeko tabernaren prezioen igoera.

6.- “Tolosaldea Sahararekin Elkartek” egin duen eskaera.

7.- Larrialdiko laguntza.

8.- Euskal Herriko plazako zentro sozialeko jangelako bonifikazioa.

9.- 2007 urterako ordainsarien igoera.

10.- Uxola saria.

11.- Gure irratia.

12.- Laguntza ekonomikoak.

13.- Plenoko gaia:

-Convenio entre los ayuntamientos de Ibarra y Tolosa en relación al polígono industrial de Apatta-Erreka.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2007ko urtarrilaren 22an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Tolosako Udalak herriko ikastetxeei euskararen erabilera sustatzeko plangintzak diruz laguntzeko deialdiari buruzko txostena.

Jakitunen txostena ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udal honek herriko ikastetxeei euskararen erabilera sustatzeko plangintzak diruz laguntzeko deialdiari buruzko txostena onartzea eta proposatutako dirulaguntzak ematea, jarraian aipatzen denaren arabera:

1.- Haur eta Lehen Hezkuntza:

Ikastetxea	Plangintzaren kalitatea eta iraupena orokorrean	Kalitatearen lanketa, ahozkoari zein idatzizkoari dagokionean	Tolosako ikasleen kopurua	Etorkinen euskalduntzea	PUNTUAK GUZTIRA
	10.250 puntu	1.000 puntu	6.500 puntu	2.250 puntu	20.000 puntu
Samaniego	3.130	334	1.610	695	5.769
Hirukide	3.006	333	2.300	665	6.304
Laskorain	4.114	333	2.590	890	7.927

Puntu bakoitzak euro baten balioa du.

2.- Bigarren Hezkuntza :

Ikastetxea	Plangintzaren kalitatea eta iraupena	Kalitatearen lanketa, ahozkoari zein idatzizkoari dagokionean	Tolosako ikasleen kopurua	Etorkinen euskalduntzea	Puntuak guztira
	14.000 puntu	3.000 puntu	8.000 puntu	5.000 puntu	30.000 puntu
Orixe	3.000	720	1.380	750	5.850
Hirukide	3.500	620	3.135	2.000	9.255
Laskorain	5.000	1.120	2.830	2.000	10.950
Lanbide Hezkuntza	1.620	420	455		2.495
Inmakulada	880	120	200	250	1.450

Puntu bakoitzak euro baten balioa du.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri, Ikastetxe interesatuei, Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzaileari ematea.

3.- Inauterietako egitaraua eta aurrekontua.

Festa batzordeak proposatuta, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Inauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den 188.900eurotako aurrekontua onartzea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Kontuhartzailetzari eta Festa arduradunari ematea.

4.- KPI-ren igoera; Kontratuak; familiei dirulaguntzak; taldeei dirulaguntzak.

<i>KONTRATUAK:</i> <u>Nura: - Gizarteratzeko teknikoak.</u> Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako	<i>CONTRATOS:</i> <u>Nura: - Técnico de Inserción.</u> A propuesta de la comisión
---	--

batzordeak jaulkitako diktamena-
rekin bat etorri, Gobernu batzar
honek, aho batez eta alkateak
emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gizarteratzeko
teknikoaren zerbitzuarengatik,
Nura Elkarteari ordaintzen zaion
kopuruari KPlaren igoera
aplikatzea (%2,6).

BIGARREN.- Dagokion akordioa
honako hauei jakinaraztea: Nura
Elkarteari, Gizarte Zerbitzuetako
Departamentuari eta
Kontuhartzaitzari.

.....

Kaleko eskuartzea :

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako
batzordeak jaulkitako diktamena-
rekin bat etorri, Gobernu batzar
honek, aho batez eta alkateak
emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Arriskuan dauden adin
txikikoekin esku hartzeko
programaren bi hezitzaileen
zerbitzuarengatik, Nura Elkarteari
ordaintzen zaion kopuruari
KPlaren igoera aplikatzea (%2,6).

BIGARREN.- Dagokion akordioa
honako hauei jakinaraztea: Nura
Elkarteari, Gizarte Zerbitzuetako
Departamentuari eta
Kontuhartzaitzari.

.....

informativa de Sanidad y Servicios
Sociales, la Junta de Gobierno, por
unanimitad y en uso de las
facultades delegadas al efecto por la
alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Incrementar con el IPC
(2,6%) el importe abonado a Nura
Elkartea por el servicio de técnico de
Inserción.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la
adopción del presente acuerdo a los
departamentos de Intervención,
Servicios Sociales y a Nura.

.....

Programa de Intervención en
Medio Abierto.-

A propuesta de la comisión
informativa de Sanidad y Servicios
Sociales, la Junta de Gobierno, por
unanimitad y en uso de las
facultades delegadas al efecto por la
alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Incrementar con el IPC
(2,6%) el importe abonado a Nura
por el servicio de educadores para el
programa de Intervención en Medio
Abierto.

SEGUNDO.- Notificar el acuerdo
correspondiente a: Nura Elkarte, así
como a los departamentos de
Intervención y Servicios Sociales.

Ilarki: Etxez etxeko laguntza.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamena- rekin bat etorri, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoari etxez etxeko laguntza zerbitzuarengatik ordaintzen zaion orduko prezioari KPIaren igoera aplikatzea (%2,6).

BIGARREN.- Dagokion akordioa honako hauei jakinaraztea: Ilarki Elkargoari, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari eta Kontuhar- tzailtzari.

FAMILIEI DIRU LAGUNTZAK:

Etxez etxeko laguntza trinkoa.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamena- rekin bat etorri, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Adinarenegatik, elbarrita- sunagatik edo gaitasun sozial ezagatik eguneroko bizitzan oinarritzeko diren aktibitateak gauzatzeko eragozpenak dituzte- nek (hilean 50 ordu baino gehiago) jasotzen duten diru laguntzari KPIaren igoera aplikatzea (%2,6). Horrela, hileko kopurua handiena 236,98 € izango da.

.....

Ilarki: - Etxez- etxeko laguntza.

A propuesta de la comisión informativa de Sanidad y Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Incrementar con el IPC (2,6%), el precio/hora que se abona a la Asociación Ilarki, por el servicio de Ayuda a Domicilio Municipal.

SEGUNDO.- Notificar el acuerdo correspondiente a la Asociación Ilarki, al departamento de Intervención y Servicios Sociales.

.....

FAMILIEI DIRULAGUNTZAK:

Etxez-etxeko laguntza trinkoa.

A propuesta de la comisión informativa de Sanidad y Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar el incremento del IPC (2,6%) a las ayudas económicas que perciben aquellos casos que por razón de edad, discapacidad o incapacidad social tienen dificultades a la hora de realizar actividades básicas (más de 50 horas mensuales). La cantidad máxima mensual será de 236,98 €.

BIGARREN.- Dagokion akordioa Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari ematea.

.....

Harrera Familiarra.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamena-
rekin bat etorri, Gobernu batzar
honek, aho batez eta alkateak
emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Bere kabuz moldatzen diren adin handiko pertsonak hartzen dituzten familientzako ekarpenari KPIaren igoera aplikatzea. Horrela, hileko kopurua 894,68 € izango da.

BIGARREN.- Dagokion akordioa honako hauei jakinaraztea: Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari.

.....

TALDEEI DIRU LAGUNTZAK:

Abegi.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamena-
rekin bat etorri, Gobernu batzar
honek, aho batez eta alkateak
emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2007. urtean, Abegiri (Pasadizokoen etxea) ordaintzen

SEGUNDO.- Notificar el acuerdo correspondiente a los departamentos de Intervención y Servicios Sociales.

.....

Harrera Familiarra.

A propuesta de la comisión informativa de Sanidad y Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aumentar el IPC (2,6%) a las aportaciones que reciben las familias que tiene acogidas personas mayores válidas. Quedando establecida la cantidad de 894,68 € /mes.

SEGUNDO.-Notificar el presente acuerdo a los departamentos de Intervención y de Servicios Sociales.

.....

TALDEEI DIRULAGUNTZAK:

Abegi.

A propuesta de la comisión informativa de Sanidad y Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO Incrementar con el IPC (2,6%) la subvención económica a

<p>zaion diru laguntzari KPIaren igoera aplikatzea (%2,6).</p> <p>BIGARREN.- Dagokion akordioa honako hauei jakinaraztea: Abegiko arduradunei, Kontuhartzailetzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari.</p>	<p>Abegi (Hogar del Transeúnte), para el 2007.</p> <p>SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a los responsables de Abegi, así como a los departamentos de Intervención y Servicios Sociales.</p>
--	---

5.- Emeterio Arreseren Zentro Sozialeko tabernaren prezioen igoera.

<p>Iñaki Etxeberria Insaustik, Emeterio Arrese 2 kaleko zentro sozialeko tabernaren kontzesiodunak prezio berrien zerrendaren proposamena ikusita, eta kontuan izanik Harizpe elkarteak jakinaren gainean daudela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">E R A B A K I D U</p> <p>LEHENA.-Aurkeztutako proposamena onartzea.</p> <p>BIGARREN.- Erabaki honen berri, Gizarte Zerbitzuetako departamentuari, Iñaki Etxeberria Insaustiri eta Harizpe elkarteari ematea.</p>	<p>Vista la propuesta presentada por Iñaki Etxeberria Insausti, concesionario del bar del centro social sito en Emeterio Arrese 2, sobre la revisión de los nuevos precios y teniendo en cuenta que la Asociación Harizpe, ha sido informada de dicha revisión, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">A C U E R D A</p> <p>PRIMERO.- Aprobar la propuesta de nuevos precios presentada.</p> <p>SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Servicios Sociales, al concesionario del bar del Centro Social y a la Asociación Harizpe</p>
--	--

6.- “Tolosaldea Sahararekin Elkartek” egin duen eskaera.

<p>Otsailaren 23tik martxoaren 1era, Maratón Solidario izenekoa izango da Saharan. Hori horrela,</p>	<p>Del 23 de febrero al 1 de marzo se celebrará una nueva edición del Maratón Solidario en el Sahara.</p>
--	---

<p>"Tolosaldea Sahararekin Elkartea"-k diru laguntza eskatu du, Elkaratearen izenean parte hartu behar duten bi korrikalariri bidaia ordaintzeko.</p> <p>Ikusita, ekintza horrek bi helburu ditu: bata, Saharako errefuxiatuen egoeraren gainean sentsibilizatzea, eta bestea, errefuxiatuen guneetako kirol instalakuntzen finantzaketan laguntzea.</p> <p>Gobernu batzar honek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">ERABAKI DU</p> <p>LEHENA.- Maraton Solidario proban parte hartzeko, bi pertsona horien bidaia-gastua onartzea. Kostua: 1.700 €</p> <p>BIGARREN.- Erabaki honen berri, "Tolosaldea Sahararekin" elkarteko arduraduneri, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari ematea.</p>	<p>Desde la Asociación "Tolosaldea Sahararekin" solicitan ayuda económica para abono del viaje de dos personas que representando a dicha asociación participarán en esta prueba.</p> <p>Dado que el objetivo de la actividad es además de la sensibilización sobre la situación de la población refugiada saharauí, contribuir a la financiación de instalaciones deportivas en los campos de refugiados.</p> <p>La Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Sanidad y Servicios Sociales, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">ACUERDA</p> <p>PRIMERO.- Aprobar los gastos de desplazamientos de dos personas al Maratón Solidario. Importe: 1.700€</p> <p>SEGUNDO.-Dar cuenta de la adopción del presente a la Asociación "Tolosaldea Sahararekin", así como a los departamentos de Intervención y Servicios Sociales.</p>
--	--

7.- Larrialdiko laguntza.

<p>Saharar herria oso behar larrian dagoenez, eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">ERABAKI DU</p>	<p>Ante la situación de extrema necesidad en la que se encuentra el pueblo Saharauí, y a propuesta de la comisión informativa de Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">ACUERDA</p>
---	---

<p><u>LEHENA</u>.-Saharako errefuxiatuek dituzten larrialdiko beharrentzako, Nazioarteko Lankidetzaren aurrekontutik 6.000 euroko diru laguntza ematea.</p> <p><u>BIGARREN</u>.- Laguntza hori Tolosaldea Sahararen bitartez bideratzea, "Caravana Vasca con el Sahara, Alimenta una esperanza"ri egindako ekarpen bezala.</p> <p><u>HIRUGARREN</u>.-Erabaki honen berri, "Tolosaldea Sahararekin" elkarteko arduradunei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuei ematea.</p>	<p><u>PRIMERO</u>.-Destinar 6.000€ del presupuesto de Cooperación Internacional como ayuda de emergencia para cubrir necesidades básicas de la población refugiada.</p> <p><u>SEGUNDO</u>.- Canalizar esta ayuda a través de Tolosaldea Sahararekin, y como aportación a la "Caravana Vasca con el Sahara, Alimenta una Esperanza".</p> <p><u>TERCERO</u>.-Notificar el presente acuerdo a los departamentos de Intervención y Servicios Sociales, así como a la Asociación "Tolosaldea Sahararekin".</p>
---	--

8.- Euskal Herriko plazako zentro sozialeko jangelako bonifikazioa.

<p>P.CH. G eta A.M.U. jaun/andreek egin dituzten eskaerek ezarrita dauden baldintzak betetzen dituztenez, Gobernu batzar honek, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">ERABAKI DU</p> <p><u>LEHENA</u>.- Euskal Herria plazan dagoen zentro sozialeko jangelako prezioen hobaria ematea P.Ch.G eta A.M.U. jaun/andreei.</p> <p><u>BIGARREN</u>.- Erabaki honen berri, P.CH.G eta A.M.U. jaun/andreei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari ematea.</p>	<p>Teniendo en cuenta que los señores P.CH.G y A.M.U. reúnen las condiciones exigidas para la exención del comedor del Centro Social de Euskal Herria Plaza, la Junta de Gobierno, a propuesta de la informativa de Servicios Sociales, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">ACUERDA</p> <p><u>PRIMERO</u>.-Conceder la bonificación en los precios del comedor del centro social de plaza Euskal Herria a P.CH.G y A.M.U.</p> <p><u>SEGUNDO</u>.-Dar cuenta de la adopción del presente cuerdo a los departamentos de Intervención y Servicios Sociales, a la responsable de la residencia Iurreamendi y a los</p>
--	---

	solicitantes.
--	---------------

9.- 2007 urterako ordainsarien igoera.

2007 urterako Tolosako Udaleko hitzarmen kolektiboak ordainsarrietan markatzen duen igoera %4 dela adierazi dute eta, hortaz, ordainsarrietan igoera hau aplikatzeko proposamena egin da.

Aipatu da, era berean, batetik, EUDELEk udalei bidalitako idatzietan proposamen hau egin duela eta, bestetik, sindikatu batzuek aurkeztutako idatzi baten ondorioz, EUDELEko mahai paritarioan gai hau otsaileko lehen egunetan tratatzekoak direla, interpretazio ezberdinak baitaude bi aldeen artean. Dena den, aldaketarik badago, gaiaren berri emango dela adierazi da.

Aipatutako guztia kontuan izanda, eta Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2007 urterako Tolosako udal langilegoen ordainsarrietan %4ko igoera aplikatzea.

BIGARREN.- Igoera bera aplikatzea, aurreko urteetako jarrerarekin bat etorriz, beste hainbat udal konpromisori, nahiz eta nomina bati lotuta ez egon.

10.- Uxola saria.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak proposatuta, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- “Uxola Saria” bideratzeko 6.500€ko aurrekontua onartzea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

11.- Gure irratia.

Urtero bezala, *Gure Irratiak* publizitate proposamena aurkeztu du. Euskara eta Hezkuntza Departamentuak D proposamena aukeratu eta onartu du. Hau da proposamen hori: 30 publizitate pasaldi egingo dituzte eta Udalak Irrati horretan elkarrizketa bat egiteko aukera izango du nahi duen gaiaz. Aurrekontu hau du: 350 €. Hori horrela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- *Gure Irratiak* aurkeztutako D proposamena eta aurrekontua onartzea: 350 €.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Kontuhartzailtzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta *Gure Irratiari* ematea.

12.- **Laguntza ekonomikoak.**

Korrika, Kilometroak 07, Herri Urrats eta Ibilaldia 07k diru laguntza eskatu dute.

Euskara eta Hezkuntza departamentuak eskaerak aztertu ditu eta bakoitzari 1.000 € ematea diktaminatu du.

Gobernu batzar honek, aipatu diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Korrika, Kilometroak 07, Herri Urrats eta Ibilaldia 07ri mila bana euro ematea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Korrika, Kilometroak 07, Herri Urrats eta Ibilaldia 07ren antolatzaileei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

13.- **Plenoko gaia:**

Hurrengo Osoko Bilkuran pasako den gaiaren berri eman da:

- Convenio entre los ayuntamientos de Ibarra y Tolosa en relación al polígono industrial de Apatia-Erreka.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatu dute:

Soziolinguistika Klusterra.-

Euskara eta Hezkuntza departamentuak proposatuta, Gobernu batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Soziolinguistika Klusterra Elkarteko bazkide sustatzaile izatea.

BIGARREN.- Soziolinguistika Klusterra Elkartearen estatutuak onartzea.

HIRUGARREN.- Soziolinguistika Klusterra Elkarteko bazkide sustatzaile izateak eskutzen dituen obligazio eta betebeharrak guztiei erantzuteko konpromisoa hartzea.

LAUGARREN.- Erabaki honen berri, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Soziolinguistika Klusterrari ematea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute, goizeko 9tan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.